# SARAUBE BERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkaria #96
2019ko AZAROA/ NOVIEMBRE





## El trabajo diario contra la violencia machista tendrá especial intensidad durante noviembre

Prevenir y hacer frente a la violencia machista es un esfuerzo cotidiano, tal y como muestra el Ayuntamiento de Ayala en su proceder diario. Así, aprovechando el Día Internacional por la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres, Aiarako Berdintasunaren Aldeko Foroa ha dado un impulso a su trabajo y este mes llevará a cabo numerosas actividades que arrancarán el 9 de noviembre, sábado, con un cine fórum en Menagarai. El 12, martes, a las 18:00 ofrecerán un taller en Emakumeen Gela para detectar y confrontar el machismo colectivamente. El día 15 será el encuentro comarcal de las mujeres en Artziniega y el 22 el reparto de premios del concurso Beldur Barik en Okondo. El 24 habrá otro cine fórum a las 17:00 en Emakumeen Gela y el 25 se hará una concentración en el ferial. El 30, sábado, un teatro en euskara tomará Emakumeen Gela.

*Aiarako Berdintasunaren Aldeko Foroak antolatu ditu hainbat ekintza: Menagarain zine foruma egingo dute azaroaren 9an, eta12an 18:00etan tailerra egongo da matxismoari aurre egiteko. Horrez gain, beste zine forum bat, elkarretaratzea eta antzerkia prestatu ditu.*

## Emakumeen topaketak

Aurten Aiarako Kuadrillako emakumeen topaketak Artziniegan izango dira azaroaren 15ean Etnografia Museoan. Garrantzia emango zaie eskualdeko elkarte eta talde feministei eta Wikipedian jasoko da euren historia. 10:00etan hasiko dira eta hitzaldiak eta talde dinamikak ez ezik, bazkaria eta DJ emanaldia ere egongo dira. Azaroaren 13an bukatuko da epea izena emateko eta 686 587 889 telefonora deitu edo cayala.miren@ayto.araba.eus helbidera idatzi beharra dago.



## Encuentro por la Igualdad

La Cuadrilla de Ayala celebrará el Encuentro Comarcal por la Igualdad el 15 de noviembre en Artziniega, en el Museo Etnográfico. Las protagonistas serán las asociaciones de mujeres y los colectivos feministas. De hecho, se recogerá la historia de todas ellas en Wikipedia. Las actividades comenzarán a las 10:00 y además de conferencias y dinámicas de grupo, organizarán una comida y una sesión de DJs. El plazo de inscripción expirará el 13 de este mes y para participar hay que llamar al 686 587 889 o escribir a cayala.miren@ayto.araba.eus

# Arabako Foru Aldundiak finantzatuko du ontzi arinen aldaketa



Aiarako Kuadrillak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmena sinatuko dute apirilean jarritako edukiontzi berriak ordaintzeko aldundiak. Lurralde osoan jarritako 278 ontziek, guztira, 197.700 euroko kostua izan dute eta hurrengo jardunaldietan banatuko da diru-laguntza. Zehazki, 2023. urtean bukatuko da epea. Berez, Foru Aldundiak adierazi du gastu horri aurre egingo diola, Arabako beste eskualdeetan aurretik egin duen moduan.

Erositako edukiontzi gehienek 3.200 litro jasotzeko gaitasuna dute eta jarri direnetik 224.080 kilogramo batu dira 2019an. Bildutako hondakin mota horiek Jundizen kokatua dagoen instalazioetara eramaten dira birziklatzeko.

*La adquisición de los 278 nuevos contenedores amarillos para envases ligeros, que sustituyeron a los anteriores con forma de iglú, estarán financiados a través de una ayuda foral. Esta cantidad se abonará de forma plurianual en varios ejercicios hasta el año 2023. La Diputación Foral de Álava, que ya dotó de envases amarillos al resto de las cuadrillas con anterioridad, se hará cargo íntegramente del coste también en Ayala; 197.700 euros en total.*

# Ikasleak Maroño ezagutzen



Etxaurren Ikastolako neska eta mutilei Maroñoko inguru ederren balioak trasmititzeko tresnak eta dinamikak prestatu zituzten irakasleek urriaren 16an. Horretarako trebakuntza saioa jaso zuten tokian bertan.

Berez, Agenda 21 ekimenaren proiektuaren barruan Maroñoko Unitate Didaktikoa osatu egin da eta ikasleek ez ezik, irakasleek ere parte hartuko dute. Hurrengo irteeretan irakasleek baliatuko dituzte euren ikasleekin jolasak eta talde dinamika ezberdinak. Horren helburua izango da urtegiaren fauna, landaredia eta ekosistemak ezagutzera ematea Aiarako herritar gazteen artean, etorkizunean eurek babestu dezaten ondare naturala.

# Bizikletak eta CDak bota ordez, berriro erabili itzazu, elkartasuna lantzen duten erakundeekin bat egiteko

Bi hitzarmen berri sinatu dira Garbigunean utzitako bizikleta eta CD zaharrak berreskuratzeko.

Bi Elkarte solidariok hartuko dute material horiei bigarren bizitza bat emateko ardura, CEAR-ek (Iheslariak Laguntzeko Batzordea) eta Socicul Elkarteak, hurrenez hurren. Azken erakunde horrek, adibidez, eskualdean antolatu ditu azokak bigarren eskuko materialak saltzeko eta diru hori beharrak dituzten lagunentzat bideratzeko. Hortaz, erabiltzen ez diren bizikleta zaharrak eta CDak -betiere originalak eta egoera onean badaude- Laudioko Garbigunera eramateko gonbidapena luzatzen du Aiarako Kuadrillak. Ingurumena zaintzeaz gain, elkartasuna adierazteko aukera egongo baita ahalegin handia egin gabe.










# En noviembre arranca el período de pago del IBI y las tasas de basura




El 1 de noviembre se ha abierto el plazo para el pago voluntario del Impuesto de Bienes Inmuebles tanto urbanos como rústicos y de las tasas de basura. En el caso del tributo rústico se ejecutará el segundo pago y tanto en este como en el IBI urbano el período para realizar el abono concluirá el 15 de diciembre. Las tasas de recogida de basura podrán ser sufragadas el 31 de diciembre como máximo. La transferencia puede ser mediante domiciliación bancaria, en Kutxabank, con la pasarela de pagos del Gobierno Vasco "Mi pago" o en las oficinas municipales. El 1 de enero se iniciará el cobro ejecutivo para quienes no se hayan hecho cargo de sus responsabilidades tributarias, con el recargo correspondiente.

*Aiarako Udalak jakinarazi du landa eta hiri Ondare Higiezin Zerga zein hondakinen bilketaren tasak kobratzeari ekingo diola. Azaroaren 1ean hasi zen boluntarioki ordaintzeko epea, bai helbideratutako kontu korrontearekin, Kutxabankera joanda, "Nire ordainketa" zerbitzuarekin edo udal bulegoetan. OHZren kasuan abenduaren 15ean bukatuko da epea eta hondakinei dagokienez, hil bereko 31n. 2020ko urtarrilaren 1ean hasiko da kobrantza exekutiboa.*

# Manejar la demencia



El 13 y 20 de noviembre de 17:00 a 18:30 en el Centro de Atención Diurna de Respaldiza, organizado por el Ayuntamiento, ofrecerán el curso gratuito "Las demencias: pautas para afrontar el día a día de un familiar con demencia".

Entre otras cuestiones, explicarán en qué consiste esta afección, cuáles son sus síntomas y sus diferentes fases. Además expondrán los tipos distintos que existen y harán especial hincapié en el Alzheimer. Más allá de esta información, orientarán el curso a manejarse con personas que padezcan esta enfermedad; cómo comunicarse con ellas, gestionar situaciones conflictivas, o establecer relaciones estimulantes encaminadas a fomentar la autonomía y la independencia.

# "Igande arratsaldeak familian" programaren saio berria egongo da azaroaren 17an ipuin kontalariaren eskutik

Euskararen erabilera eta umeen aisialdia uztartzen ditu "Igande arratsaldeak familian" ekimenak Aiaran eta edizio berria egongo da azaroaren 17an Menoioko Kontzeju-Etxean,17:00etatik aurrera izango da hitzordua, hain zuzen. Zehazki, hilabete honetan antolatu duten saioan Odei Arregi emakume gazteak "Ipuin lotsatiak" ikuskizuna eskainiko du.

Sortzailearen hitzetan, "ageri-agerian egotea gustuko ez duten, liburuetatik ihes ezkutatzen diren eta espero ez diren lekuetan agertzen diren kontakizunak" baliatuko ditu. Horrez gain, hainbat objektu eta material erabiliko ditu aurkezteko pertsonaiak.

Odei Arregiren emanaldiaren ostean, askaria prest izango dute umeek eta eskulan tailerra egongo da bukatzeko.






# Subvenciones a menores



Las personas menores de edad que practiquen actividades musicales o de danza que no se ofrezcan en el municipio de Ayala tendrán la oportunidad de solicitar una subvención hasta el 25 de noviembre. Concretamente, la entidad local contribuirá en aquellas iniciativas realizadas desde septiembre de 2018 hasta junio de 2019. Las solicitudes, junto con la documentación requerida, deberán ser presentadas en la instancia normalizada que se facilitará en el Ayuntamiento. También está disponible en la web municipal: www.aiarakoudala.eus.

*Aiarako Udalak eskainiko die diru-laguntza herritik kanpo musika eta dantza ikasketak edo ekintzak izan dituzten umeei. Hori eskatzeko epea bukatuko da azaroaren 25ean. Berez, deialdian parte har dezakete aipatutako jarduera egin dutenek 2018ko irailetik 2019ko ekainera bitartean, biak barne. Eskabide-orria udal bulegoetan eskuratu daiteke Arespalditzan eta Luiaondon, baita www.aiarakoudala.eus web atarian. Hori betetzeaz gain, dokumentazioa aurkeztu beharko da.*

# Agenda

## 9
### ZINE FORUMA
**Emakume taldeak antolatuta**
*Menagarai, 17:00*

## 12
### TALLER
**Detectar y hacer frente colectivamente al machismo**
*Respaldiza, Emakumeen Gela, 18:00*

## 13
### TAILERRA
**Dementziari aurre egiteko pautak**
*Arespalditza, Eguneko arreta zentroa, 17:00*

## 15
### IGUALDAD
**Encuentro Comarcal por la Igualdad**
*Artziniega, Museo Etnográfico, 10:00*

## 17
### IPUIN KONTALARIA
**Odei Arregi, "Ipuin lotsatiak", askaria eta eskulanak**
*Menoio, Kontzeju-Etxea, 17:00*



## 20
### TALLER
**Pautas para hacer frente a la demencia**
*Respaldiza, Centro de atención diurna, 17:00*

## 22
### BELDUR BARIK
**Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa**
*Okondo, 18:00*




## 24
### CINEFORUM
**Proyección de una película y debate**
*Respaldiza, Emakumeen Gela, 17:00*



## 25
### KONTZENTRAZIOA
**Indarkeria matxistarik ez**
*Arespalditza, Feriala*

## 30
### TEATRO
**Una obra que combinará la igualdad y el euskara**
*Respaldiza, Emakumeen gela, 18:00*



***Whatsapp municipal***

***Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.***